

Ander Nazabal Gomez De Segura

A maila • 2 saria

Ander Nazabal Gomez de Segura naiz, 17 urteko ordiziarra. 2. Batxilergoan nago, Ordiziako Oianguren institutuan.

Abelerak sei lurraldeetan euskararen egoeraz dihardu, beraz, honetan zergatik ez hitz egin euskararen abeleraz nigan?

Duela ia hemezortzi ninduzun iratzarri

Ordutik zurekin naiz hazi eta hezi

Ni zur zati, zu zizelkari

Gure lurra bada olerki, honen errima didazu
ezagutarazi

Laster izango naiz nagusi baina betiko, zu, nire
ereserki.



ABELERA

Euskera,
Non zera?
Atera kalera!
Zu gabe, nor gera?
Zein da gure izaera?

Maskarada

Eguzkiaren dierria,
Sorginen bizitokia
Zamaltzainaren dantzaldia,
Orainaren eta geroaren herria,
Zure aberria

Hiru damatxo

Marinelen kanta zaharrak,
Olatuen orroak,
Itsasoaren deiadarrak,
Arrantzaleen balentriak
Zuk gogoraraziak.

Haritzen arbasoa

Pagadien artean,
Haritz eta elorrien babesean,
Txalaparta melodiak noraezean,
Dantzan,
Zure kadentzian.

Erreinu zaharra

Gure sabaia,
Gailurren garaia,
Haitzen esanahia
Tontorren kalipu nahia
Urrun zure amaia.

Zazpigarren alaba

Kimu kikildua,
Lautada antzua,
Alboka doinu baxua,
atzendutako lekua,
Zure sekretu ezkutua

Oren guziek dute gizona kolpatzen

Zelaiak kendu du neguko izara,
Ibaian barrena joana da.
Udaberriak esnatu ditu mitxoleta eta liliak,
Koloreztatu ditu larreak, sortaldeko eguzkiak
Sumatzen da zure indarra, iratzarri zera

Euskera
Non zera?
Zu zara lotzen gaituen bandera,
Zuri zor gure izaera,
Norberarena bera,
Eta guztiona batera.

Gurekin zaitez gera, Euskera